

GNOSTIA

2012 LEIOAKO UMORE AZOKA  
Epaimahaiaren aitamen berezia

# ATX TEATROA

Iñaki Ziarrustak, Gaitzerdi Teatro konpainian 18 urte emon eta gero, konpainia barria sortu eban 2010. urtean: **ATX Teatroa**.

Gure ikuskizunei jagokenez, hauexek dira **ATX Teatroaren** zutaberik nagusienak:

- Distopia edo kakotopia
- Antiestetikea
- Euskal Herriko tradizino eta antropologian ikertzea

Baina **ATX Teatroa** antzerki konpainia baino askoz be gehiago da. Kale- zein areto- ikuskizunak sortzeaz gain, bestelako zerbitzuak be eskaintzen deutseguz beste konpainiei:

ATX Aholkularitza: Aholkularitza Tekniko-artistikoa. Oraintsu, KABIAREN ROJO AL AGUA eta GAITZERDIAREN SUZ ikuskizunetako zuzendaritza teknikoak egin doguz.

ATX Eszenografiak: Eszenografia eta attrezzo tailerra. Gure azken lanak KABIAREN ROJO AL AGUA eta GAITZERDIAREN SUZ ikuskizunetan ikusi daitezke.

ATX Ikastaroak: Ikastaro monografiko trinkoak (profesional eta amateurrentzat)

# SINOPSISIA

**GNOSIA** boterearen zentzubakokeria, menpean mantso-mantso jartzeko joera, eta ezinbesteko iraultzearen ganeko ikuskizun ziklikoa da, non istorioa behin eta barriz errepikatzen dan. Gure barneko metafora legez, armairua.....eta haren barruan, bortizkeria, sexua, amarrukeriak, azpijokoak, irainak, ustelkeria....

**GNOSIAN** gure alde ilunari argia  
emoten deusagu.

Aurreretxiak albo batera itzi eta  
erdu geugaz zure alde beltzaz gozatzeko!



# GNOSIAren GANEAN



Gnosia ATX Teatroaren lehenengo ikuskizuna da. Hortik dator ikuskizunaren izenburua hain zuzen be, eta ez beste inondik.

Hau da, gnosia norberaren barrua ulertzeko prozesua da, gauza bakotxa jagokon lekuan jarri eta geure izaereagaz bat egin. Termino hau zentzu bitan interpretatu leiteke, mistikoan edo intelektualean. ATX Teatroaren kasua bigarrena da. Ez dau zerikusirik mistikeagaz, geure barrua ezagutzeko eta onartzeko prozesuagaz baino.

Izatez, Gnosia ikuskizunaren istoriak ez dauka zerikusirik gnosia terminoagaz, baina guk izen hori jartzea ebagi dogu, guretzako, gaur egun gagozan puntura ailegatzeko, prozesua horixe izan dalako. Gnosia.



# IKUSKIZUNeko IDEIAK



Gure alde ilunagaz be egin behar dogu lan, ezinbestez.

Boterea lortzeko borroka basati honetan, steampunka, estetika gotikoa, ziberpunka eta holangoak dira ikuskizun honetako bidelagunak.

Metafora legez, armairu bat daukagu. Gure armairuetan, gure baitan dagoz gure intimitate guztiak, erakusten doguzanak zein erakutsi gura ez doguzanak, ordenatuak zein nahastuta eta desordenatuta dagozanak.

Armairu horren inguruan mugituko da ikuskizuna eta bertan daukaguzan lotsa guztiak lau haizeetara zabalduko doguz, ederrak zein motzak, batez be, azken honeek.

Ikusleen garunen txoko ilun hartan argi apur bat jarri gura dogu, neurri batean edo bestean, guztiok garalako basapiztiak, zitalak, itsusiak, ugertsuak, ilunak... eta horretarako be, Gnosia behar,... zure alde iluna ezagutu.

Ikuskizunak 9 eszena daukaz armairu baten inguruan.


Helduentzako da eta gauez egitekoa. 9 eszena horreetan gure barraua asatintzen dauazan irudiak eta pertsonaiak ikusiko doguz...

Hankaz gora eskigitako pertsonaiak,  
hankarik, begirik edota besorik ez daukienak,  
larrutu ondoren azal barik dabilena,  
jonkia, eroa,  
kabaretera dekadentea,  
urkatua...



# Fitxa artistiko-teknikoa

<b>Idea eta gidoia:</b>	ATX Teatroa
<b>Aktoreak:</b>	Gonzalo Nadal Ivan Parra Soraya Regulez Miguel Yuste
<b>Eszenografia:</b>	ATX Teatroa
<b>Objektuak:</b>	Mercedes Ceballos
<b>Jantziak:</b>	ATX Teatroa
<b>Soinu-Espazioa:</b>	Edu Zallio
<b>Argiztapena:</b>	Amaia Yurrebaso
<b>Irudiak:</b>	Ane Pikaza
<b>Produkzioa:</b>	ATX Teatroa
<b>Banaketea:</b>	ATX Teatroa



ATX

TEATROA

[www.atxteatroa.com](http://www.atxteatroa.com)

[atxteatroa@atxteatroa.com](mailto:atxteatroa@atxteatroa.com)

00 34 638 324 105